

Jaiotzak %5,2 gutxitu ziren 2013ko hirugarren hiruhilekoan

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztien %38

2013ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 4.969 haur jaio ziren, aurreko urteko aldi berean baino %5,2 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Gipuzkoan 1.612 haur jaio ziren, %-8,7, jaitsierarik handiena; Araban 779, %-4,2; Bizkaian 2.578, %-3,2.

Ama berrien arteko 5etik 4k 30 urte baino gehiago dauzkate

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %38,5. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%35); ondoren 25-29ko taldea, %13,2, aurrekoen erdia baino gutxiago. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatzen direnak %5,3 dira, eta 40 urtez gorakoan taldean jaiotzen %8,1, talde hau delarik hazi den bakarra.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak, %38; aurreko urteko aldi berean %35,8. Ama ezkongabeen batez besteko adina, 32,1 urte; dibortziatuena 36,3 eta alargunena 34,8; azken bi talde hauek oso txikiak dira, alargunak 6 besterik ez. Ezkonduetako amek, hiruhileko honetan eta batez beste, haurrak 33,9 urterekin izan zituzten.

Ama atzerritarrak lau urtez gazteagoak dira espainiarrak baino

Euskal AEn 2013ko uztail, abuztu eta irailean amatu ziren emakumeen %17,3 atzerritarrak ziren. Ehuneko horren gainetik, Araba, %23,4; Bizkaian %16,6 eta Gipuzkoan %15,6.

Amatzeko adina aldatu egiten da naziotasunaren arabera. Atzerritarrena, 30,1 urte batez beste; espainiarrena, 34.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2013ko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.703 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.810 (%36,4) aurretik beste bat zegoen familetara etorri ziren; hirugarren eta ondorengo seme-alabak, %9,2.


Aurreneko haurra izandako emakume-kopurua %8 jaitsi da; bigarrena denean %1,4koa da jaitsiera, hirugarren eta ondorengoentzat, %2,4koa, 2012ko hiruhileko beraren aldean.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2013ko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2013ko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2012ko 3. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.969	100,0	4.843	100,0	5.241	100,0
Araba / Álava	779	15,7	795	16,4	813	15,5
Bizkaia	2.578	51,9	2.445	50,5	2.663	50,8
Gipuzkoa	1.612	32,4	1.603	33,1	1.765	33,7
Amaren adinaren arabera	4.944	100,0	4.838	100,0	5.241	100,0
≤ 24 urte	263	5,3	252	5,2	304	5,8
25 - 29 urte	652	13,2	659	13,6	743	14,2
30 - 34 urte	1.901	38,5	1.905	39,4	2.122	40,5
35 - 39 urte	1.728	35,0	1.668	34,5	1.720	32,8
≥ 40 urte	400	8,1	354	7,3	352	6,7
Amaren egoera zibilaren arabera	4.969	100,0	4.843	100,0	5.241	100,0
Ezkondua	3.083	62,0	3.042	62,8	3.367	64,2
Ezkongabea	1.886	38,0	1.801	37,2	1.874	35,8
Amaren naziotasuna	4.969	100,0	4.843	100,0	5.241	100,0
Espainiarra	4.107	82,7	3.995	82,5	4.332	82,7
Atzerritarra	862	17,3	848	17,5	909	17,3
Jaiotza-hurrenkera	4.969	100,0	4.843	100,0	5.241	100,0
Lehenengoa	2.703	54,4	2.513	51,9	2.939	56,1
Bigarrena	1.810	36,4	1.898	39,2	1.835	35,0
Hirugarrena edo gehiago	456	9,2	432	8,9	467	8,9

Iturria: Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroako datuak



Iturria: Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua